10/1 Titulua :	Helburua :	Gaiari doakion jakintasuna :	Hizkuntzari doakion jakintasuna :
Gure oihanetako animaliak			

Haritzaren egoiliarrak

Eman dezagun haritza animalia hauek aterpetzen dituen etxea dela...
Hitz hauek leku egokian idatz.
zizarea – urtxintxaren habia – xori xeheak – satorra – orkatza – insektu hegaztiak – buzokaren habia – okilaren ziloa – azkon ziloa –
basasagua – basurdea

	Izena :			Ikas neurria			Norekin egina
	ona	artekoa	eskasa	heldu batekin	lagun batekin	bakarrik	

10/2 Titulua :	Helburua :	Gaiari doakion jakintasuna :	Hizkuntzari doakion jakintasuna :
Gure oihanetako animaliak			

Nor dira silueta hauen gibelean ?

Silueta bakoitzari doakion izena eman.
azeria – oreina – garrapoa – urtxintxa – orkatza – basurdea

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Izena :	Ikas neurria			Norekin egina			Eguna :
	ona	artekoa	eskasa	heldu batekin	lagun batekin	bakarrik	

10/3 Titulua : Gure oihanetako animaliak	Helburua :	Gaiari doakion jakintasuna :	Hizkuntzari doakion jakintasuna :

Hatzak eta oinatzak

Oinatz eta hatz hauek zein animaliei dagozkie ? Aztarna bakoitza animalia bati lot eta ondotik animaliaren izena idatz.

animaliak

© MIFEN/De Joantho

.....

© A. Elosegi

.....

© MIFEN/De Joantho

.....

© A. Elosegi

.....

© MIFEN/De Joantho

.....

© J.R. Aihartza

.....

oinatzak eta hatzak

Izena :	Ikas neurria			Norekin egina			Eguna :
	ona	artekoa	eskasa	heldu batekin	lagun batekin	bakarrik	

Oinatzak nola bil

Animalien oinatzak nola molda

Animalien aztarnen eta oinatzen bilatzeak oihanaren hobeki ezagutzeko parada ematen digu. Usaia poxi batekin ikertzaile ona bilakatuko zara eta oinatzetik lehen begi kolpean ezagutuko duzu zein animalia den. Batzuen oinatzak gogoan hartzeko, haien moldaketa apaila zenezakete.

1 Oinatzaren bila

❙ Lehenik gogoan har ez dituzula oinatzak edozein tokitan aurkitzen ahalko : leku lohitsuetan dituzu aiseenik atzemanen.
❙ Erreka bazterretan eta gune hezeetan edo uspeletan has zaitez bilatzen ; alor eta landa bazterretan ere, halaber, edo berdin hondartzako harean edo haremunoetan eta nolaz ez, elurrean.
❙ Dena den, moldaketa ez da hain errazki egiten, hauskorra baita eta igeltsuaren pisuarekin deformatzen.

2 Nola has

❙ Oinatza pintzelarekin garbi ezazu hosto eta egur puskak kenduz.
❙ Oinatza ingura ezazu aitzinetik prestatua duzun kartoizko xerrenda batekin.
❙ Kartoizko xerrenda lurzoruan finka ezazu. Aiseago ariko zara lur arteka ganibetarekin aitzinetik egina izanez geroz.

3 Moldaketa

❙ Ontzi bat egizu : plastikozko botila bat bi partetan motz eta behereko partea har.
❙ Igeltsua urarekin nahas. Nahasketaren ongi kausitzeko, igeltsu paketeko argibideak artoski irakur. Dena den, likido lodia erdietsi behar duzu.
(Komunzki, bi igeltsu dosi ezartzen dira ur dosi batentzat. Aiseago aritzeko, igeltsu lasterra (berehala gogortzen dena) balia. Baratze-saltegietan atzemanen duzu errazki).
❙ Likidoa moldean zabal ezazu. Kasu : oinatzak likidoz ongi estalia izan behar du.
Oren laurden batez bederen idortzera utz, igeltsua gogortua dela egiaztatu arte.

Izena :		Eguna

Oinatzak nola bil

4 Desmoldaketa

- Igeltsua gogortua dela egiaztatu ondoan, moldaketaren koadroa ken.
- Moldaketa guzia lurretik emeki-emeki deslot ezazu.
- Guzia idortzera utz egun oso batez bederen. Dena garbi ezazu pintzelarekin.

Moldaketa egina duzu !

5 Jatorrizko oinatzaren berrosatzea

Jatorrizko oinatza berrosatu nahi baduzu (erran nahi baita lehen aldian, oihanean ikusi zenuen bezala, ziloak eta tunturrak alderantziz)

- Igeltsuzko mokorra ore puska batean zapatuz sarrazu.
- Geroxeago deslot itzazu bi koskoak.
- Horrela oihaneko jatorrizko oinatza orean duzu.

Izena :		Eguna